

'Elefante arroxa' aurkeztu zien Idoiak Baliarrainen bildutako umeei

BALIARRAIN. DV. Ipuia kontatuko deu?, galdetu zion mutikotxo batek Idoiari. Bai, baina beste pixkatxo bat itxarongo dugu, bostak jo arte, eta orduan hasiko gara, ados?. Arratsaldeko 17:00ak jotzeko bost minutu inguru falta zirenean igo zen mutikotxoa bere lagunekin Baliarraingo liburutegira Idoia Sanchezen ipuinak entzutera, eta irrikaz igo ere, luze egin baitzitzaizkion 17:00 jo bitarteko minutuak.

Baina berehala hasi zen Idoia Sanchez Baliarraingo haur eta gaztetxoei istorio eta abentura liluragarriak kontatzen. Mazapanezko gizontxoaren ipuinarekin hasi zen. Horrela ezagutu zituzten, mazapanezko gizontxo bat egin zuten aiton-amonak. Baina labetik ateratzerakoan gizon-txoak ihes egin zien eta hamaika komeria sorrarazi zizkien. Azkenean, ordea, azeri bat agertu zen eta....

Ezagutzen al duzue elefante arroxarik?, galdetu zuen Idoiak. Ez, noski, ez zuten ezagutzen. Nola ba? Ba, Idoiak aurkeztu zien lehenengo elefante arroxa. Lorategi batean bizi omen zen, gainerako elefante eme guztiekin batera. Elefante eme guztiak arroxak ziren eta azala oso leuna zuten. Eta ba al dakizue zergatik ziren elefante emeak arroxak? Ba, bizi ziren lorategiko anemonak eta beoniak bakarrik jaten zituztelako. Horregatik ziren arroxak.

Elefante arrak, berriz, grisak ziren, lokatzetan ibiltzen ziren jolasean, eta nahi zuten guztia jaten zuten.

Baina behin, Margarita izena zuen elefante eme bat jaio omen zen... Margaritak zer egin zuen eta Mazapanezko gizontxoarekin zer gertatu zen jakin nahi duenak honako aukera hauek izango ditu Idoia Sanchez berriro ipuinak kontatzen ikusteko: azaroaren 15ean arratsaldeko 16:30etan Berastegin arituko da, eta 18:00etan Elduainen. Azaroaren 20an, berriz, arratsaldeko 17:30etan Adunan arituko da, eta 18:30etan, berriz, Larraulen.